

Ihesi

Euskal Herria ezagutuz

TESTUA ETA ARGAZKIAK:
GORKA AZKARATE

Ataun-Zaldibia (Gipuzkoa)

Jentilen bideetatik

Ataunek konta ezin ahala altxor gordetzen du bere baitan. Aralarko Parke Naturalean kokatua, mendi txango ezberdinak egiteko aukera paregabea eskaintzen du. Horrez gain, aztarnategi historiko garrantzitsua aurkitu daiteke bere mugen barruan. Besteak beste, Joxe Migel Barandiaran maisu handiaren jaiolekua izan da Ataun. Jarraian aurkezten dugun txangoak denboran atzera eginez historiaurrean murgiltzeko aukera eskainiko digu.

Ataungo herri-gune nagusitzat hartzen den San Martin auzoan (204 m) hasi eta bukatuko dugu txango eder hau. Gipuzkoako herririk luzeena da Ataun, eta auzo ugari dituen arren, biztanleak San Martin, San Gregorio eta Aian biltzen dira nagusiki. Lizarrustiko mendaterantz doan errepidea hartu eta Urkillagako lepoa gaindituz Aia auzora heltzen den errepidea hartuko dugu berehala, GR-20 (Aralarko bira) ibilbideko margo ikur zuri-


gorriei segika. Bigarren mailako errepide hori utzi eta haren eskuinetik abiatzen den bidexka batetik osatuko dugu Urkillagarainokoa, malda gogorrik gainditu beharrik gabe baina eten gabeko igoeran.

Urkillagako lepora (513 m) iristeak atsedean txikia egitera gonbidatuko gaitu ezinbestean. Aia auzoa gertu sumatuko dugu, lepoaren bestaldean. Inguruaren edertasuna ikaragarria da. GR-20 xenda nagusia utzi eta haren

anaia txikiari jarraituz (GR-20.1), Leizadiko malkarrari egingo diogu aurre, txango osoko malda gogorrenari. Sigisaga, garaiera irabazten joango gatzazkio mendiari, eta Leizadiko gailurra bera eskuineko aldetik saihestuz (aukerako igoera) Agautzko (974 m) gailurrera helduko gara, Goierriko zati handi baten eta Aralarko eremu garaienaren ikuspegi paregabeaz gozatzuz. Ahalik eta garaiera gutxien galduz, Erremedioko belar-soraa inguratu eta,

Agautz gailurretik ikuspegia. Atzean Aizkorri, Gorbeia, Anboto eta Oiz nabarmentzen dira.





Jentilarriko trikuharria.

Lareoko urtegiara jaisten den bide nagusia une batez utziz, Sastarriko haitzetara joko dugu, gailurrera heldu garela esango digun gutunontzi ezkutuaren bila (996 m).

Xenda nagusia berreskuratu eta beherantz joango gara, Lareoko urtegiarantz. Metro batzuk aurrerago, ordea, modu nabarmenean margoturiko harri batean Sastarriko kobara doan bidegurutzea hautemango dugu. Merezi du bisitatzea. Minutu gutxitan helduko gara basoan ezkutaturik dagoen kobara. Barnera sartzeko aukera ere badago, baina arretaz ibili. Behin koban sarturik, aukera bi izango ditugu: eskuinaldeko osin edo lakutxoak ikustea edo ezkerreko ziriztuak miatzen saiatzea. Espeleologia saiakera amaitutzat emandakoan, bide nagusi

Osinberdeko iturburua.



sira itzuli eta zailtasun handirik gabe, Lareoko urtegiaren ertzerara helduko gara, jaitsiera lasaian.

Lareoko urtegia inguratzen duen baso pista jarraituz, Baiarrateko igarobide garrantzitsura helduko gara, Enirioko saroirra eramango gaituena. Igaratzara zuzen abiatzen den bidea utzi eta Uiduiko saroirra joko dugu, Supitaitzeko zutarriaren eta Jentilarriko trikuharri ezagunaren bila. Trikuharri ugari bistartzeko aukera ematen duen bide nagusi hau jarraituko bagenu, Zaldibiako Olakosaira helduko ginatke, baina Ataun San Martinera itzultzea da gure asmoa, eta halaxe egingo dugu. Horrela, Arategiko lepoa igaro eta Intxustin barrena Eniriora doan baso pista hartuko dugu, Sastarriren oinean bertan, eta kontrako noran-

tzan, Eniritik Ataunera artekoa egingo dugu, Intzartzuko haitzen azpitik igaroz, eta txangoa Jentilbaratzako igarobide ikusgarrian barrena amaituz.

Osinberde

Osinberdeko iturburuak (Zaldibia), dauka emari hidrologiko handienaren errekorra Gipuzkoan: segundoko 600 litro euri gehien egiten duen urte sasoiaren, eta 15 litro inguru sasoi lehorrenean. XIX. mende amaieran, ubide sare garrantzitsua eraiki zen Amondarain-Aralar gainean, eta bestalde, bi zentral ere eraiki dira uraren emariaren indarra baliatzeko. Osinberdeko putzua zokogune ezkutu batean gorde dago, baina iristeko erraza da. Zaldibiatik autoz heldu daiteke Arkakara eta handik abiatuz ordu laurden inguru beharko dugu putzura heltzeko. Bidean, ubide sarearen arrastoak ikusteko aukera dago.

Bestalde, orain gutxi ireki dituzte ateak Arkakako uraren interpretazio zentroak. XX. mende hasierako zentral hidraulikoaren goiko solairuan egokitu dute interpretazio gunea, eta horrez gain, Zaldibia herri-gunea eta lakua lotzen dituen bideak eta lakuko arrantza eskolak berak osatzen dute zentroa. ■